



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

ELGOIBARKO HIZKUNTZA- ANIZTASUNAREN MAPA

Datuen azterketa

Immigrazioko biztanleriaren jatorrian
oinarritutako azterketa

2022ko urria



Egileak: Xabier Aierdi, zuzendaria; Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
	Ohar metodologikoa	4
2	JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK ELGOIBARREN	5
2.1	Giza taldeak, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera	5
2.2	Jatorri atzerritarreko biztanleria, sexuaren arabera	7
2.2.1	Datu orokorrak: migrazioaren feminizazioa	7
2.3	Jatorri atzerritarreko biztanleria, adinaren arabera	10
2.3.1	Datu orokorrak	10
3	ELGOIBARKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA JATORRIAREN ARABERA	12
3.1	Jatorri atzerritarreko biztanleen jatorri-herrialdeak	12
3.2	Emari handieneko 20 jatorri-estatuak	13
3.3	Hiztun-kopuru txikiko jatorri-estatuak	14
3.4	Espainiako estatuan jatorria dutenak	15
3.5	Elgoibarko hizkuntza-aniztasuna (Elgoibarren hitz egin daitezkeen hizkuntzak)	16
3.6	Gaztelania ofiziala duten jatorri-herrialdeak	19
4	ONDORIOAK	20
	Etorkizuneko erronka	21
	BIBLIOGRAFIA	22

1 SARRERA

Elgoibarko Hizkuntza-aniztasunaren mapa Soziolinguistika Klusterrak Elgoibarko Udalaren eskariz egindako azterketa da.

Proiektuaren helburua Elgoibarko Hizkuntza-aniztasunaren mapa osatzea da. Mapa horren azterketarako ez dira kontuan izan euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren egoera, izan ere, hiru hizkuntza horiek tratamendu berezitua eskatzen dute, euskarak eta gaztelaniak euren izaera koofizialagatik, eta ingelesak hezkuntza-sistema formalean eta ez-formalean duen pisuagatik.

Helburu hori kontuan izanda, dokumentu honen egitura honako hau da: sarrera-atalean, azterketaren ohar metodologikoa eskainiko da. Bertan azpimarratu da gaur egun ez dagoela hitz egiten diren hizkuntzen inguruko datu-bilketa formal eta protokolorik, eta, beraz, azterketa honetan hipotesi-mailako hizkuntzen presentzia aurreikusiko dela; hizkuntzen presentzia hori ikerketa kualitatiboek baieztatu beharrekoa izango da.

Bigarren kapituluan Elgoibarko biztanleriaren ezaugarriak deskribatuko dira, arreta jarriz azken urteetan Elgoibarrera heldutako immigrazioaren joera orokorretan, jatorri atzerriarreko biztanleriaren portzentajeetan eta sexuaren eta adinaren arabeko banaketan.

Datuok hizkuntza-aniztasunaren sortzaile den jatorri-estatuaren arabera aztertuko dira txostenaren hirugarren kapituluan. Hizkuntza-aniztasuna ez da homogenea, ez

jatorriari dagokionean, ez eta hiztun-kopuruari dagokionean ere. Badira 20 jatorri-estatuetakoko hiztunak jatorri atzerriarreko biztanleriaren % 92,9 osatzen dutenak; beraz, jatorri-estatu horietako hizkuntzek presentzia berezia izan dezakete Elgoibarren.

Baina, bestalde, badira beste 32 jatorri-estatutako hiztunak, biztanleria migratzailearen % 7,1 osatzen dutenak; biztanle-kopuru oso-oso txikia duten arren, euren artean ere hizkuntza-aniztasuna handia izan daiteke.

Hizkuntza-aniztasunerako hurbilketa honetan kontuan izan dira, era berean, gaztelaniaz gain beste hizkuntzak hitz egiten diren Espainiar Estatuko erkidegoetan jaio eta Elgoibarren bizi diren biztanleen datuak ere.

Arestian esan bezala, hizkuntza-aniztasunaren inguruko honako hurbilketa hau, hipotesi mailakoa da. Hurrengo erroka handia izango da, hemen ezarritako hipotesi horiek baieztatzen diren ikusteko, ikerketa kualitatiboak abian jartzea.

OHAR METODOLOGIKOA

Gaur egun, ez dago biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzen inguruko datu-bilketa zehatza egiteko prozedura formalik edo protokolorik, EUSTATEk euskarari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain. Ondorioz, ez dago ziurtasunez jakiterik Elgoibarko biztanleek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Galdera horri erantzuteko, jatorri-estatuetakoko hizkuntza-aniztasunaren arabera egingo dira hipotesiak, baina aurrerantzean egin beharreko ikerketa kualitatiboan emaitzei erreparatzea ezinbestekoa izango da.

Ez dira asko esparru horretan egindako lanak, baina oso kontuan izango dira txosten honetan, besteak beste honakoak: Ahotsak, 2016; Ikuspegi (Uranga et al. 2008), (Aierdi eta Uranga 2018), Ikuspegi 2019, 2020); Emakunde, 2012; Fernández Aragón et al., 2017 eta Aztiker, 2015.

Lan honetan erabilitako datuen iturri nagusia Elgoibarko *Biztanleriaren udal-errola* (2022) izan da.

Azterketa honetan jatorri atzerritarreko biztanleek honako hiru ezaugarriren bat duten biztanle guztiak aintzat hartu dira: a) *Espanian jaio eta atzerritarra*¹ izatea; b) *atzerrian jaio eta espainiarra* izatea, eta c) *atzerrian jaio eta atzerritarra* izatea. Hori horrela, eta ikerketa kualitatiboek berresten dutenaren baldintzapean, azterketa honetan erabili diren hipotesiak ondorengo hauek dira:

¹ Ikerketa honetan atzerria kategoria Espainia kanpoko estatuei esleitzen zaie; atzerritar Estatu espainiarreko nazionalitatea ez duten biztanleei.

- Jatorri atzerritarreko biztanleek jatorri-herrialdeetako hizkuntza ofiziala(k) hitz egiten d(it)u(z)te.
 - Espero izatekoa da hizkuntza ofizial horretan² hitz egingo dutela, jatorrizko hizkuntza beste bat(zuk) d(it)u(z)tenen kasuetan ere. Halere, ez da beti horrela izaten, alegia, biztanle guztiek ez dute beti estatuaren hizkuntza ofiziala hitz egiten jakiten.
- Jatorrizko herrialdeetan hizkuntza ofizialez gain hitz egin de(it)zaketen hizkuntza(k) ere identifikatu behar d(ir)a.
 - Hizkuntza horien identifikazioan, dagoeneko hizkuntzen presentzia dokumentatuta dituzten hizkuntzak hartu dira kontuan³.
- Gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat hitz egin dezaketen Espainiako beste autonomia erkidego batzuetan jaio eta Elgoibarren bizi diren biztanleen datuak ere kontuan izango dira.

² Estatu askotan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dago, eta euren presentzia lurraldean ez da ezinbestean homogenea. Beraz, jatorri lurralde bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera hitz egingo dute hizkuntza batzuk edo beste batzuk Elgoibarrera etorritako biztanleek.

³ Uranga et al. 2008, Ikuspegi 2015, Topagunea 2016, Emakunde 2018, ...

2 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK ELGOIBARREN

2.1 GIZA TALDEAK, JAIOTERRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Hizkuntza-aniztasuna zehazteko, jatorri atzerritarreko biztanleria aztertuko da atal honetan, bereziki honako bi datu hauek gurutzatuz: biztanleak jaio diren estatuak zein diren eta gaur egun duten nazionalitatea zein den. Hala, biztanleen datuen azterketarako lau giza talde bereizi daitezke:

1. *taula. Biztanleriaren giza multzoak, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera*


		Nazionalitate espainiarra		
Estatu Espainiarrean jaioak			+	-
			+	a) Espainian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak
-			c) Atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak	d) Atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak

Kontuan izan behar da, beraz, Elgoibarren erroldatuta dauden jatorri atzerritarreko biztanleak b, c eta d taldekoak hartu direla aintzat azterketa honetan, hau da, *Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea* (b) dutenak, *atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak* (c) eta *atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea* (d) dutenak.

1. grafikoa. Biztanleria, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera. Elgoibar, 2022

Elgoibarren 11.464 biztanle bizi dira⁴; biztanle horien artean 1.448k osagai atzerritarra dute, (biztanleria osoaren % 12,6). Arestian esan bezala, horien artean ezaugarri desberdinetako hiru talde biltzen dira (b, c eta d taldeak).

- Talde handiena atzerrian jaio eta Espainiako nazionalitate ez duten biztanleek osatzen dute (d taldea: 948 biztanle, biztanleriaren % 8,3).
- Espainian jaio arren, espainiar nazionalitate ez duten biztanleek % 1eko taldea osatzen dute (b taldeko 109 pertsona, biztanleriaren % 1); Espainiako nazionalitate ez duten migratzaileen seme-alabak dira, oro har.
- Atzerrian jaio eta Espainiako nazionalitatea dutenak 391 biztanle dira eta biztanleriaren % 3,4 osatzen dute (c taldea).




a) Espainian jaio eta nazionalitate espainiarra	10.016	87,4
Jatorri atzerritarra (b+c+d)	1.448	12,6
b) Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea	109	1,0
c) Atzerrian jaio eta espainiarra	391	3,4
d) Atzerrian jaio eta atzerritarra	948	8,3
Biztanleria guztira	11.464	100,0
Iturria: <i>Biztanleriaren udal-errolda; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.</i>		

⁴ Biztanleen udal-errolda. Elgoibar, 2022.

2.2 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIA, SEXUAREN ARABERA

2.2.1 Datu orokorrak: migrazioaren feminizazioa

2. grafikoa. Biztanleriaren jatorria, sexuaren arabera. ELGOIBAR, 2020 (%)



Iturria: Biztanleriaren udal-errola; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.

Biztanleriaren sexu-banaketari dagokionean, puntu bateko aldea dago Espainiar jatorriko eta jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean. Espainiako jatorria dutenen artean emakumeak % 50,7 dira; eta jatorri atzerritarrekoen artean % 51,9, alegia, azken horretan aldea handiagoa da.

Nahiz eta alde hori handia ez den, Euskal Autonomia Elkartearen orokorrean gertatzen den modura, Elgoibarren ere, neurri bateko immigrazioaren feminizazio bat ikus daiteke.


	Emakumezkoak		Gizonezkoak		GUZTIRA	
Espainiar jatorria	5.078	50,7	4.938	49,3	10.016	87,4
Jatorri atzerritarra	751	51,9	697	48,1	1.448	12,6
	5.829	50,8	5.635	49,2	11.464	100,0

3. grafikoa. Jatorri atzerritarreko biztanleen feminizazioa (emakumeak gizonak baino gehiago), kontinenteen arabera. Elgoibar, 2022 (Abs.)

Feminizazio horrek, ordea, garrantzi berezia hartzen du jatorriaren arabera aztertuz gero. Izan ere, nabarmendu behar da, emakumezkoen eta gizonezkoen banaketaren aldeak oso desberdinak direla jatorriko estatua zein den.


Esate baterako, Amerikako jatorria duen biztanleriaren artean, 169 emakume gehiago dira gizonezkoak baino (2022. urtean). Aldiz, Afrika, Asia eta Europako jatorria dutenen artean, gizonak gehiago dira: Afrikan jatorria dute 59 gizonezko gehiagok; Asian 9k eta Europan 30 gizonezko gehiagok.

	Emak.	Gizon.	Guztira	ALDEA. Emak./ Giz.
AFRIKA	173	232	405	-59
AMERIKA	456	287	743	169
ASIA	31	60	91	-29
EUROPA	87	117	204	-30
OZEANIA eta beste	4	1	5	3
	751	697	1.448	54



Iturria: Biztanleriaren udal-errola; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.

4. grafikoa. Jatorri atzerritarreko biztanleen feminizazioa (emakumeak gizonak baino gehiago), herrialdeen arabera. Elgoibar, 2022 (Abs.)



Arestian esan bezala Amerikako estatuetatik datorren migrazio-populazioaren artean feminizazioa nabarmena da. Zehazkiago aztertuz gero, esate baterako, Nikaragutatik, Boliviatik eta Hondurasetik heldutako biztanleen artean, 66, 28 eta 22 emakume gehiago dira gizonezkoak baino.

Aitzitik, alde handiarekin dira gehiago gizonezkoak Afrikatik datozenen artean; bereziki maskulinoagoak dira Marokon, Pakistanen eta Senegalen jatorria duten biztanleen taldeak (35, 31 eta 23 gizonezko gehiago dira emakumezkoak baino, hurrenez hurren).

Migrazioaren fenomenoaren sexuaren arabeko bereizketa hau kontuan izateko moduko ezaugarria izan daiteke hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokia egiteko orduan.

Iturria: Biztanleriaren udal-errolda; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.


2.3 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIA, ADINAREN ARABERA

2.3.1 Datu orokorrak

Elgoibarko biztanleria adinaren arabera aztertuz gero, badira azpimarra daitezkeen aldeak jatorri atzerritarreko biztanleriaren eta biztanleria osoaren arteko banaketetan.

Esate baterako, udalerriko biztanleriaren datu orokorrak kontuan izanez gero, hamasei urte arteko haur eta gaztetxoek % 16,2ko pisua dute; jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean zerbait txikiagoa da adin horretako taldea (% 14,4). Gazteen proportzioa, aldiz, handiagoa da jatorri atzerritarren artean (% 11) biztanleria orokorrean baino (% 8).

5. grafikoa. Biztanleriaren adin-banaketa jaitorriaren arabera. Elgoibar, 2022 (%)



	Estatu espainiarra		Jatorri atzerritarra		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
<16	1.652	16,5	209	14,4	1.861	16,2
16-24	756	7,5	160	11,0	916	8,0
25-44	1.942	19,4	709	49,0	2.651	23,1
45-64	3.085	30,8	313	21,6	3.398	29,6
65 eta gehiago	2.581	25,8	57	3,9	2.638	23,0
	10.016	100,0	1.448	100,0	11.464	100,0

Iturria: Biztanleriaren udal-errola; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.

Alde hori, ordea, bereziki handia da 25 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren artean; izan ere, adin horietakoak dira jatorri atzerritarreko biztanleriaren ia erdia, zehazki immigrazioko populazio osoaren % 49; aldiz, biztanleria orokorrean adin-tarte horretako proportzioa soilik % 23,1ekoa da. Adin nagusiagoetan, 45-65 bitartekoan, eta, batez ere, 65 urte baino gehiagoko biztanleen arteko pisu erlatiboa, aldiz, bereziki txikiagoa da jatorri atzerritarrekoen artean, biztanleria orokorrean baino. Esan daiteke, beraz, jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean, gazteek eta heldu gazteek (17 eta 44 bitartekoa) gehiengo nabarmena osatzen dutela (% 60 inguru) biztanleria osoaren joeratik nabarmen urrunduz (% 31).

Nolanahi ere, azpimarragarria da, haur eta gazteen ehunekoa elkar hartuz, proportzio antzekoa dutela bi taldeetan, alegia, 24 urte azpiko biztanleek guztira populazioaren laurdena hartzen dutela bi kasuetan. Era berean, proportzioaz harago, biztanle-kopuruari erreparatuta, garrantzizkoa da kontuan izatea, adin horietako jatorri atzerritarreko ia 400 pertsona bizi direla gaur egun Elgoibarren (zehazki, 369 biztanle); ziur asko arretaz begiratzeko moduko datua izan daiteke hori.


3 ELGOIBARKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA JATORRIAREN ARABERA

Elgoibarko hizkuntza-aniztasunera hurbiltzeko helburuarekin biztanleriaren jatorria aztertu da bi aldagai kontuan izanda: *jatorri atzerriarreko biztanleak* eta *gaztelaniaz gain beste hizkuntza koofizialak dituzten Espainiako Autonomia Erkidegoetan jaiotako biztanleak*.

3.1 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLEEN JATORRI-HERRIALDEAK

Jatorri atzerriarreko biztanleek 52 estatu desberdinetan dute euren jatorria; horietatik % 92,9k 20 estatutan, eta gainerako % 7,1ek 32 estatutan.

6. *grafikoa. Jatorri atzerriarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusien eta gainerako banaketaren arabera. Elgoibar, 2022 (Abs.; %)*



Beraz, hurbilketa honetan jada, Elgoibarko hizkuntza-aniztasuna azaltzeko lehen bereizketa egin daiteke, aurreikus baitaiteke 20 jatorri horietako biztanleen hizkuntzek izango dutela pisuzko presentzia Elgoibarko udalerrian.

Horiekin batera, gainerako 32 herritan jatorria duten biztanleen artean hizkuntza-aniztasun handia dagoela aurreikusi daiteke, nahiz eta jatorri horietako hiztun-kopurua bereziki txikia izan.


Iturria. Biztanleriaren udal-errola; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.

3.2 EMARI HANDIENeko 20 JATORRI-ESTATUAK

Elgoibarren hiztun-kopuru handiena izan ditzaketen hizkuntzak hogei estatutan dute jatorria. Jatorri horietako biztanleek atzeritarren artean % 92,9 osatzen dute.

Emari gehien duten estatuak Maroko, Nikaragua, Bolivia, Portugal, Pakistan, Errumania, Kuba, Senegal, eta Ekuador dira (50 biztanletik gora). Ondorengoek 10 eta 50 arteko biztanle-kopuruak dituzte: Venezuela, Dominikar Errepublika, Honduras, Kolonia, Brasil, Argentina, Txina, Nigeria, Frantzia, Mexiko, eta Ukraina.

7. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Elgoibar, 2020 (%)




	Jatorri-estatuak	Abs.	%
1	Maroko	289	20,0
2	Nikaragua	232	16,0
3	Bolivia	140	9,7
4	Portugal	72	5,0
5	Pakistan	71	4,9
6	Errumania	70	4,8
7	Kuba	60	4,1
8	Senegal	59	4,1
9	Ekuador	56	3,9
10	Venezuela	48	3,3
11	Dominikar Errepublika	46	3,2
12	Honduras	42	2,9
13	Kolonia	37	2,6
14	Brasil	27	1,9
15	Argentina	20	1,4
16	Txina	20	1,4
17	Nigeria	19	1,3
18	Frantzia	13	0,9
19	Mexiko	13	0,9
20	Ukraina	11	0,8
	20 estatuko jatorria	1.345	92,9
	Gainerako 32 estatuko jatorria	103	7,1
		1.448	100,0

Iturria. Biztanleriaren udal-errola; Elgoibar, 2020. Grafikoa SLK.

3.3 HIZTUN-KOPURU TXIKIKO JATORRI-ESTATUAK

Elgoibarren badira beste 32 estatu ingurutan jatorria duten biztanleak. Estatu horietan jatorria dutenek immigratutako populazio osoaren % 7,1 osatzen dute. Kasu guztietan jatorri horietako biztanle-kopuruak oso txikiak dira, 10 biztanle baino gutxiago baitaute bertan. Nolanahi ere, jatorri-herrialdeetako hizkuntza-egoera kontuan izanda, hizkuntza-aniztasun handia egon daitekeela aurreikusi daiteke.

8. grafikoa. Jatorri atzerritarreko biztanleak, 10 biztanle edo gutxiago dituztenak. Elgoibar, 2022 (Abs.)




Iturria. Biztanleriaren udal-errolda; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.

3.4 ESPAINIAKO ESTATUAN JATORRIA DUTENAK

Ikerketa honen alderdi aipagarria da gaztelaniaz gain beste hizkuntza koofizialak dituzten Espainiar estatuko beste Autonomi Erkidegoetan jaio eta Elgoibarren bizi diren biztanleen hizkuntza-aniztasuna da. Jatorrizko komunitateko hizkuntza horiek hitz egiten dutenak zenbat diren jakiterik ez dagoen arren, interesgarria da jakitea zenbat izan daitezkeen.

Jatorri horien arabera, aipagarria da, beraz, udalerrian bizi diren biztanleen artean galegoz, katalanez, aragoieraz edo asturieraz hitz egin dezaketen biztanleak badirela (279, 51, 29 eta 21, hurrenez hurren), beti ere, gainerakoekin bezala, jatorrizko egoera soziolinguistikoaren arabera hipotesi-mailako identifikazioa eginez.

9. grafikoa. Biztanleria, Estatu espainiarreko jatorriaren arabera. Elgoibar, 2022 (Abs. %)



Iturria. Biztanleriaren udal-errola; Elgoibar, 2022. Grafikoa SLK.

	Abs.	%
EAE	8.548	74,6
Nafarroa	54	0,5
Galizia	279	2,4
Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak	51	0,4
Aragoi	29	0,3
Asturias	21	0,2
Estatu espainiarreko gainerakoak	1.140	9,9
Atzerrian jaioak	1.342 ⁵	11,7
GUZTIRA	11.464	100

⁵ Kontuan izan behar da, hemen, jatorria izan ordez biztanleak jaio diren lurraldeak hartu direla kontuan; jatorri atzerritarreko biztanleen artean daude, bertan jaio diren biztanle atzerritarrak.

3.5 Elgoibarko hizkuntza-aniztasuna (Elgoibarren hitz egin daitezkeen hizkuntzak)

Jatorri-estatuko hizkuntza ofiziala(k) kontuan izanda, eta jatorri horietako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, honakoak dira Elgoibarren hiztun-kopuru handiena izan ditzaketen hizkuntzak:

- **Arabiera, amazigera.** Jatorria: Maroko eta Aljeria.
 - Arabiera edota amazigera hitz egin dezaketen 299 biztanle bizi dira Elgoibarren (289k Marokon eta 10ek Aljerian dute jatorria); Jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 20,1 osatzen dute. Hizkuntza horien presentzia herrian, beraz, esanguratsua izango dela aurreikus daiteke. Era berean, jatorri horietako biztanle gehienek frantsesa ere hitz egin ohi dute, hizkuntza horrek jatorriko gizartean, eta, bereziki hezkuntza-sisteman duen presentziagatik.
- **Portugesa.** Jatorria: Portugal eta Brasil.
 - 72 eta 27 biztanle dira, hurrenez hurren Elgoibarren, eta jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 7 osatzen dute. Kontuan izan behar da, horietako batzuk jatorrizko estatuetakoa beste hizkuntza batzuk ere hitz egin ditzaketela. Era berean, Elgoibarren oso gutxi baldin badira ere, Angolako jatorria duten biztanleek ere portugesa hitz egin ohi dute, herrialde horretan hizkuntza horren duten estatusarengatik.
- **Urduera eta punjabera.** Jatorria: Pakistan
 - Elgoibarko erroldan izena eman duten biztanleen artean 71k Pakistanen dute jatorria, hain zuzen, jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 4,9; beraz, urdua hitz egiten duten Pakistan jatorriko biztanleek ere presentzia esanguratsua izan dezakete Elgoibarren. Urdua eta ingelesa hizkuntza ofizialak direnez Pakistanen, oro har, biztanle horiek ingelesez ere hitz egin ohi dute. Horrez gain, Euskal Herrira heldu direnen artean, Punjab eskualdeko biztanleak izan ohi dira, eta, hala, oso ohikoa da biztanle horiek punjaberaz ere hitz egitea.
- **Errumaniera.** Jatorria: Errumania
 - 70 biztanle. Jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 4,8 osatzen dute. Errumaniera hiztunen artean (Errumania jatorria duten biztanleak) beste hizkuntza batzuk ere hitz egin dezakete, hala nola, errusiera.
- **Wolof, fula, serer, diola.** Jatorria: Senegal

- Senegalen jatorria duten 59 biztanle bizi dira Elgoibarren. Jatorri atzerritarreko % 4,1. Biztanle horiek wolof, fula, serer edota diola hizkuntzak hitz egin ditzakete, besteak beste. Kontuan izan behar da herrialde horretan bertako 20 hizkuntza inguru daudela, eta beraz, hizkuntza-aniztasuna are handiagoa izan daitekeela. Horrez gain, herrialde horretako jatorria dutenen artean, frantsesa ere hitz egitea oso ohikoa da.
- **Mandarin txinera eta kantonera.** Jatorria: Txina.
 - 20 biztanle bizi dira Elgoibarren, Txinako jatorria dutenak; jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 1,4 osatzen dute. Mandarin txinera edota kantonera hitz egin ohi dute herrialde horretako biztanleek. Nolanahi ere, oso kontuan izatekoa da Txina jatorria duten biztanleen artean, beste hizkuntza batzuk ere hitz egitea oso ohikoa dela.
- **Jorubera, igboera, hausa, fula, ingelesa.** Jatorria: Nigeria
 - Nigerian jatorria duten 19 biztanle bizi dira Elgoibarren. Jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 1,3. Nigerian Jorubera, igboera, hausa eta fula hizkuntza ofizialak dira euren lurraldeetan, eta ingelesa estatu osoan. Horrez gain ordea, hizkuntza-aniztasun oso handia dago estatu horretan, eta, beraz, bertako beste hizkuntza batzuk ere hitz egin ditzakete Nigerian jatorria duten Elgoibarko 19 lagunek.
- **Frantsesa (bretoiera, okzitaniera, katalana, euskara...).** Jatorria: Frantzia
 - 13 biztanle dute jatorria Frantzian; jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 0,9 osatzen dute. Frantzia jatorria duten biztanle batzuk frantsesez hitz egiteaz gain beste hizkuntza batzuetan ere hitz egin dezakete, hala nola euskaraz, bretoieraz okzitanieraz eta alemanez, besteak beste. Era berean, Frantziaraino gain Europako zenbait estatutako biztanle askok dute frantsesa jatorrizko hizkuntza modura: Suitza, Belgika edota Monakoren kasuan, esate baterako (Elgoibarren bizi dira Suitza edo Belgikako jatorria duten biztanleak).
 - Horrez gain, oso kontuan izatekoa da, Afrikako zenbait lurraldetan jatorria duten biztanle ugari direla frantsesa ere hitz egiten dutenak, izan jatorriko estatu horietan hizkuntza ofiziala delako, kolonizazioaren eraginez, edota eskolan duen presentziarengatik.
- **Ukrainera.** Jatorria: Ukraina
 - Elgoibarko 11 biztanlek dute jatorria Ukrainan. Horiek jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 0,8 osatzen dute, eta nabarmentzekoa da, oro har, jatorri horretako biztanle askok errusiera ere hitz egiten dutela, besteak beste.

Biztanle-kopuru txikiagoa dute gainerako jatorri-estatutik Elgoibarrera immigratutako biztanleak: 50 biztanle azpiko taldeak dira. Horien arten ere hizkuntza-aniztasun handia aurreikus daiteke. Esate baterako, Europako zenbait estatutako hizkuntza ofizialen presentzia aurreikus daiteke, hala nola, italiara, alemana, errusiera eta bulgarierarena.


Jatorri-kontinente bakoitzeko estatu-jatorrietatik Elgoibarrera heldu ei diren hizkuntzen behin-behineko hurbilketa eskaintzen da ondorengo zerrendan.

EUROPA	Albaniera, alemana, errusiera, italiara, Lurralde horietan hizkuntza minorizatuak diren beste batzuk ere izan dezakete presentzia udalerrian: erromantxea, flandesera, frisiera, Irlandako gaelikoa...
AMERIKA	Aimara, guarania, ketxua, kitxua, besteak beste. Hego eta Erdi Amerikako jatorriko hizkuntzen presentzia kontuan hartzekoa da ..
AFRIKA	Bubiera, kitubera, kongoera, lingala, swahili, tekera, umbundu. Arreta bereziarekin begiratu behar da, Kontinente horretako estatu gehienek Europako jatorria duten hizkuntza ofizialak dituztela (ingelesa, frantsesa, protugesana, nederlandera edo gaztelania).
ASIA	Eskura ditugun datuen arabera, Elgoibarren ez dago oraindik Asiako jatorria duten biztanleak Pakistanen jatorria dutenez gain (aurreko atalean aipaturikoak)
OZEANIA	Tagalo

3.6 GAZTELANIA OFIZIALA DUTEN JATORRI-HERRIALDEAK

Atzerritar jatorriko biztanleriaren jatorri-estatuen arabeko hizkuntza-aniztasuna deskribatzeko kontuan izan behar da biztanle horien artean leku bereziki handia hartzen duela jatorri estatuan gaztelania ofiziala dutenek⁶. Elgoibarren jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean % 49,2k gaztelania du hizkuntza ofiziala jatorrian (kasu batzuetan beste hizkuntze bat(zue)ekin batera). Beraz, oro har, jatorri horietako biztanleak gaztelania hitzunik dira (baina ez beti), sarri elebakarrak. Kontuan izan behar da, nolahi ere, badirela horien artean beste hizkuntza batzuk ere hitz egiten dituztenak, esate baterako, aimara, guarania, mapudunguma, ketxua edota kitxua, besteak beste. Ezaugarri hau ere, oso arreta bereziarekin aztertzea izango da hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokia egiteko orduan.

10. grafikoa. Gaztelania ofiziala duten jatorri-herrialdeetako biztanleak, jatorri atzerritarreko biztanleria guztiarekiko. Elgoibar. 2022(%)



Jatorri atzerritarreko biztanleria	Abs.	%
Jatorrian gaztelania ofiziala	713	49,2
Gainerakoak	735	50,8
	1.448	100,0

Iturria: Elgoibarko Biztanleriaren udal-errola (2022). Grafikoa SLK

⁶ Ikus txosten honen hasierako ohar metodologikoan, jatorri-estatuen hizkuntza-aniztasunaren ezaugarriak aztertzei ikerketan erabilitako irizpideak.

4 ONDORIOAK

Elgoibarren erroldatuta dauden biztanleen jatorria aztertuta, udalerrian egon daitekeen hizkuntza-aniztasuna zein izan daitekeen ondorioztatu da: Galegoa hitz egin dezaketen biztanleak 280 biztanle inguru dira; Katalan hiztunak, bestalde, 50 biztanletik gora. Asturiera edo aragoiera hitz egin dezaketen biztanleak ere badira Elgoibarren, Asturiasen eta Aragoian jaiotako 21 eta 29 erroldatuta baitira bertan, hurrenez hurren.

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean, biztanle-kopuru handieneko hizkuntzak izan daitezkeenak zehatz-mehatz aipatu dira aurreko atalean. Gogoratu ditzagun hemen soilik hiztun-kopuru handiena izan dezaketenak, akaso kudeaketa berezia eskatuko dutelako. Honako hauek dira:

- **Arabiera** edota **amazigera** hitz egin dezaketen biztanleak dira pisu berezia dutenak Elgoibarren (Gipuzkoan oro har eta, baita, EAEn ere gertatzen den bezala). Biztanle horiek **frantsesa** ere hitz egin dezaketela kontuan izanda, hizkuntza horren presentzia ere esanguratsua izan daiteke, Frantziako jatorria edota Afrikako beste herrialde askotako biztanleen artean ere oso erabilia baita. **Portugesak** hitz egin dezaketen biztanleek 100 biztanle inguru izan daitezke, eta beraz, udalerriko kaleetan presentzia esanguratsua izan dezake. **Urduak** eta **punjaberak** ere presentzia esanguratsua izan dezakete herrian (Pakistan jatorriko 71 biztanle dira); biztanle horiek **ingelese** ere hitz egiten dutenez hizkuntza horren presentzia ere inportantea izan daiteke; ez da ahaztu behar hizkuntza hori ofiziala dela beste estatu batzuetan ere, hala nola Europa zein Amerikako zenbait estatutan, eta baita Afrikako batzuetan ere, hala nola, Nigerian. Beraz, migrazioko biztanleen erabileraren eraginez ingelesak ere presentzia esanguratsua izan dezake. **Errumaniera** hiztunak 70 biztanle inguru izan daitezke, eta beste 50etik gora, **wolof, fula, serer** hitz egin dezaketen Senegalen jatorria duten biztanleak. Hizkuntza horiez gain beste batzuk ere hitz egin dezakete, kontuan izanda jatorriko hizkuntza-aniztasuna. **Mandarin txinera** edota **kantonera** hitz egion dezaketen 20 lagun dira Txinan jatorria dutenak, eta beste 20 bat Nigeria jatorria duten **Jorubera, igboera, hausa** edo **fula** hitz egin dezaketenak.

Arestian aipatutakoak dira jatorri atzerritarreko hizkuntza-komunitate nagusiak. Hizkuntza horiez gain, ordea, beste batzuk ere izan daitezke, biztanleek beste 32 estatutan dutelako jatorria. Hizkuntza horien artean daude, besteak beste, Europako hizkuntza ofizialak eta ez ofizialak; Amerikan jatorria duten **guarania, kitxua, ketxua, aimara**; Afrikatik etorri diren **bubiera, kitubera, kongoera, lingala, swahili, tekera, umbundu** edo Ozeaniatik etorritako tagaloka. Beraz, esan daiteke 25 hizkuntzatik gorako hizkuntza-aniztasuna egon daitekeela Elgoibarko biztanleen artean.

Hizkuntza-kudeaketaren aldetik oso kontuan izatekoa da, jatorrian gaztelania ofiziala duen populazioak leku eta presentzia berezia duela Euskal Autonomi Erkidegoan bezala, Elgoibarren ere: 700 biztanletik gora dira orotara, jatorri atzerritarreko biztanleriaren ia erdia (% 49,2).

ETORKIZUNEKO ERRONKA

Txosten honetan *Elgoibarko Hizkuntza-aniztasunaren mapa, immigrazioko biztanleriaren arabeko hurbilketa* egin da. Gogoratu behar da ikerketaren diseinuan bertan ez dela euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren presentziaren azterketa egin, lehen bi kasuetan hizkuntza koofizialak direlako EAEn, eta ingelesak, hezkuntza-sistema formalean eta ez formalean pisu esanguratsua duelako; beraz, horiek tratamendu berezitua eskatzen dutelako

Hizkuntza-aniztasunerako hurbilketa egin dugula diogu, gaur egun ez dagoelako biztanleriaren hizkuntza-datu zehatzak biltzen dituen prozedura formal edo protokolorik, EUSTAT-ek euskarari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain (metodologia atalean zehaztu den bezala). Ondorioz, ez dago ziurtasunez jakiterik Elgoibarko biztanleek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Galdera horri erantzuteko, beraz, ikerketa kualitatiboak edo datu-bilketa sistematikoak ezinbestekoak dira. Ikerketa horiek egin bitartean, eskuragarri dauden datuek hizkuntza-aniztasunaren fenomenora hurbiltzea, soilik hipotesi-mailan ahalbidetzen dute, eta hala egin da, esan bezala, txosten honetan. Beraz, garrantzi berezia du hipotesi horiek baieztatu edo zuzenduko dituen ikerketak egitea.

Alde batetik, interesgarria litzateke euskararen eta gaztelaniaren kasuan egiten den moduan, EUSTATEk Demografia Inkestan edo Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan gainerako hizkuntzen inguruko oinarrizko informazioa biltzeko galderak integratzea, edota Udalek erroldatze-prozesuan informazio-mota hori biltzeko modua egitea. Eta aldi berean, ikerketa kualitatibo zabalak egitea komenigarria da, aurreikusitako hizkuntzen presentzia sakonago ezagutzeko. Etorkizuneko erronka garrantzizkoa izan daiteke hori zalantzarik gabe.

Sortzen eta biltzen ari den hizkuntza-aniztasunaren inguruko ezagutza baliatu dadila hizkuntza horien guztien aitortza egiteko, eta, euskararentzat dagokion kokapena ziurtatzeko.

BIBLIOGRAFIA

- Ahotsak.eus. 2016. *101 ELE Lenguas Langues Languages*. Eibar. <https://101l.ahotsak.eus/hizkuntzak/>.
- Aierdi, Xabier, eta Belen Uranga. 2018. «Gipuzkoako Hizkuntza-aniztasunaren mapa. Azterketa eta proposamenak». Soziolinguistika Klusterra.
- Oleaga, José Antonio. 2012. «Integrazioa, EAerekin identifikatza eta etorkizuneko proiektuak». In *Atzerriko emakume etorkinak EAEn*. Gasteiz: Emakunde.
- Shershneva, Julia, eta Iraide Fernández Aragón. 2017. «Familiak eta aniztasuna Euskadin (0-25 urte)». In *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*, 723–96. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua-Ikuspegi. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P3_CAP3_familiaEUS.pdf.
- Uranga, Belen, Xabier Aierdi, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu, Andoni Barreña, eta Ane Ortega. 2008. *Hizkuntzak eta Immigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, Amarauna - UNESCO Etxea.
-